

Gutuna: *Tutoreari*

Egoera: Maite, zure ikaskide eta laguna, urduri eta beldurtuta dabil azken asteotan. Ez dizu ezer esan nahi, baina hainbat ikaskidek badakizue zer gertatzen zaion: ikastetxeko zenbaitek jazarri egiten dute, jo, burla egin, sare sozialetan txikitu... Etsita dago laguna, bakarrik, iheska, ez dakizu zer egin dezakeen hemendik aurrera...

Eta, kezkatuta, Itziar tutoreari Maiteren egoeraren berri ematea eta arazoa konpontzeko bidea egin dezala eskatzea pentsatu duzu.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** Itziar tutoreari
- **Zer:** Maiteren egoeraren larritasuna azaldu (jazarpenaren xehetasunak: gutxiespenak, irainak...); zure eta beste ikasle batzuen kezkak eta zalantzak adierazi; Maiteri laguntzeko eta bullying kasu hori konpontzeko urratsak proposatu; Itziar tutoreari arazoa bideratzeko eskabide zehatza egin
- **Nola:** posta elektronikoz edo postaz
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz



Bilbon, martxoaren 11n

Egun on, Itziar:

(Hemendik abiatuta, 150 hitz gutxienez)

IDAZLAN LABURRA / 1

AUKERATUTAKO GAIA	GUTUNA: TUTOREARI
-------------------	-------------------

150 hitz gutxienez

Aztertzaila- rentzat	Bilbon, martxoaren 11n	Aztertzaila- rentzat
	Egun on, Itziar:	
	Gutun hau idazten dizut zure tutoretzako beste hainbat ikasleren izenean, <u>Maiteren</u>	Sint.
Sint.	<u>egoerari buruz berri emateko</u> . Izan ere, ez dakit ohartu zaren edo beste irakasle edo	Lot.
	ikasleren batek zerbait komentatu dizun ^F azken bolada honetan Maite burumakur,	
	urduri, beldurtuta eta triste sumatu dugu eta guztiok dakigu zer dela eta gertatzen	
Erref.	zaion hau.	
	Aurten gure gelan dauden zenbait errepikatzailek Maite jazarri egiten dute: burla	
	egin, jo, sare sozialetan txikitu eta abar. Gainerako ikasleok ez dakigu zer egin, izan	Punt.
Punt.	ere, jazarpen berak jasotzeko beldur gara.	
	Maiteren egoera oso larria da, jada ez da etxetik irten ere egiten, erasotzaileak kalean	
Punt.	aurkituko dituen beldurrez eta gurasoek, lana dela eta, denbora asko pasatzen dutenez	H. Ord.
	etxetik kanpo, uste dugu ez dakitela zer gertatzen ari zaion Maiteri.	
	Gure ustez, lehendik eta behin, bere gurasoak <u>ohartu</u> beharko zenituzke beraien	Lex.
Ort.	alabaren egoetaz. Gero, klasean hitzaldiren bat edo beste eman [bullyingari buruz	H. Ord.
	ikasleok hausnartzeko gertatzen ari denaz,] hala <u>guztiko</u> batera Maite lagundu ahal	
	izateko eta ez izateko beldurrik Maite lagunduz gero jasan ditzakegun jazarpenez.	

Aztertzaiela-
rentzat

Ez dizkizut esango erasotzaileen izenak, beraien kontra zuzenean joz gero hauek
Maite gehiago erasoko dutelakoan gaude eta.

Aztertzaiela-
rentzat

Erref.

Punt. Mesedez, Itziar, arren eskatzen dizugu egoera hau berehala konpontzea, ez baitakigu
Maitek zer egin dezakeen hemendik aurrera egoerak horrela jarraituz gero.

Eskerrik beroenak emanaz,

Xxxx



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LABURRA

Kalifikazioa: 6

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 5, 9
-: 7, 20**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 2,5

Atazan eskatutakoa bete du. Gaiarekiko hainbat alderdi ukitu ditu, eta modu ordenatuan garatu ditu.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 1,5

Ideiek hari logikoa dute, eta lerrokadetan ondo banatuta daude, nahiz eta lantzean behin lokailuen erabilera zuzenarekin asmatu ez duen. Atalen baten, puntuazioan izan dituen akatsek eta hitz ordena trakets batzuek oztopatzen dute ulergarritasuna.

ZUZENTASUNA: 2

Oro har, gramatikaren oinarrizko arauak zuzen erabiltzen ditu. Moldean aipatutako hitzen ordena desegokiren bat edo beste ere badu.